

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Gasteizko Borinbizkarra 1. sektorearen plan partzialaren bederatzigarren xedapen-aldaketaren proiektua onestea, eta hasierako onspena ematea xedapen-aldaketa horri

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko azaroaren 29an egindako ohiko bilkuran:

1. Gasteizko Borinbizkarra 1. sektorearen plan partzialaren bederatzigarren xedapen-aldaketaren proiektua onestea, zein udaleko teknikariek 2019ko irailean idatzi baitute.

2. Hasierako onspena ematea Gasteizko Borinbizkarra 1. sektorearen plan partzialaren bederatzigarren xedapen-aldaketari, 2019ko irailean idatzi eta dosierrean jasota dagoen proiektuaren arabera.

3. Dosiera jendaurrean jartzea, hogeit egunerako, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzen dituen alegazioak edo oharra aurkezterik ere.

Dosiera Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 29an

Alkate lehendakaria

GORKA URTARAN AGIRRE